

BALIO PROPOSAMENA



Gure proiektuak ikasketak egiten dauden gazteei leku eroso, lasai eta atsegin bat etxekolanak edota batzarrak egiteko eskaintzen die. Horretaz gain, haien erosotasuna gehiago hobetzeko, unibertsitate ondoan kokatuko dugu. Horrela, bertatik irteten direnean, oso gertu edukiko dute liburutegi-kafetegi hau.

Gainera, zure eginkizunak egiten zauden bitartean, kafesne bat edan dezakezu edo gure barran dauzkagun pintxoren bat jan.

Horretaz aparte, unibertsitatean ikasten dauden gazteek, haiekin **gazte txartela** ekartzen badute, beherapen ugari edukiko dituzte.

Gaur egun dauden liburutegietan isiltasuna beharrezkoa da, eta ez da lekurik egokiena talde lanean aritzeko. Gainera guztiz debekatuta dago, barruan jatea edo zerbait edatea. Gaur egungo gazteek ez dute hori bilatzen, askotan lagunekin hitz egiteko eta elkarrekin ikasteko beste toki baten bila daude halanola etxe bat. Baina gure ideia berezitasunak gehitzen ditu, etxearen besarkada bilatzen saiatu gara eta horrela gune hau sortu dugu. Horregaitik, lehen aipatu dugun bezala, hiru gela diseinatu ditugu, bakoitzean zerbait eskainiz, gure bezeroak horrela eroso sentitzeko:



Lokal honek hiru gela dauzka: **Lehenengo** gelan, hau da, printzipalean aurkituko dituzu mahaiak, esertzeko eta ikasteko edo etxeko lanak egiteko, eta kafetegia. **Bigarren** gela formalagoa eta lasaiena da. Hemen, batzarrak edota entrebistak egiteko gune egokiena da. Azkenik, **hirugarren** gela daukagu. Gela honetan lagunekin hitz egiteko aproposena da. Aulkiak egon beharrean pufak daude eta mahaiak txikiagoak dira. Gainera, mahaietan tablet batzuk daude. Hauetan, zure gustuko musika jarri dezakezu eta aurikularretan entzuteko aukera daukazu baita.

LEHENENGO GELA



BIGARREN GELA



HIRUGARREN GELA

